


**ASKOTARIKOAK GARA, BERDINAK GARA****1. Pilota zuria eta beltza**

Talde-kohesioa indartzeko, oso garrantzitsua da **taldekideek elkar ezagutzea**, haien interesak, beharrak eta sentimenduak zein diren jakitea. Horrek laguntzen du alderdi berdinak, ezberdinak eta bakoitzaren berezitasunak azaleratzen eta taldearen aniztasuna baloratzen, nork bere identitatea eta taldearena eraikitzen lagunduko dien taldekide izateko sentimendua izan dezaten.

Jarduera hau egin baino lehen, lagungarria izan daiteke  ariketa egitea, giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

**HELBURUA**

- Ikaskideek ondo egoteko zer behar duten jakitea.
- Ikaskideak gaizki sentiarazten dituzten egoerak ezagutzea.
- Txandak errespetatzea.

**GARAPENA**

Egiten hasi baino lehen, irakasleak azalduko du zertarako egiten den eta zer lortu nahi den, eta errespetuzko giro batean egingo dela —guztion iritziak gustuak eta sentipenak errespetatuta— eta pertsona guztiek askatasuna izan behar dutela beren beharrei buruz hitz egiteko.

Galderak banatuko zaizkie ikasleei erantzunak **bakarka** emateko.

Azpimarratuko zaie komeni dela jokabideak oso zehatzak izatea (adibidez, “ondo tratatzea” ez litzateke zehatza izango; horren ordez, honelako erantzunak izan daitezke: “jolasetan onartzea, egia esatea...”) baita norberak bizi izandakoak ere.

Ondoren, **talde handian**, zirkuluan jarriko dira. **Irakasleak hasiko du jolasa**. Jarriko da zirkuluaren barruan, eskuetan pilota bi dituela. Beltza eta zuria. Bere izena eta ezaugarria esango ditu ozenki eta, jarraian, taldeko kide batenak esango ditu eta hari pasako dio pilota beltza, zein den ondo sentiarazten duen jokabidea ozenki esan eta gero; adibidez, «Jon izena dut, alaia naiz; Fatimari pasako diot pilota eta ondo sentitzen naiz azalpenak ematen ditudan bitartean adi zaudetelako». Garrantzitsua da 1. pertsonan adieraztea, adibidean bezala. Ondoren, irakasleak berriro bere izena esango du ozenki eta, jarraian, taldeko kide batena esango du eta hari pasako dio pilota zuria, zein den gaizki sentiarazten duen jokabidea ozenki esan eta gero, adibidez, «Jon izena dut; urduria naiz; Aimarri pasako diot pilota eta gaizki sentitzen naiz azalpenak ematen dudun bitartean zarata dagoenean» eta zirkuluaren barruan eseriko da. Orain pilota dutenak zirkuluaren barruan jarriko dira zutik eta gauza bera egingo dute. Ariketa hori parte-hartzaile guztiak zirkuluaren barruan eserita egon arte errepikatuko da.

Ikasle bakoitzak pilota zuria ala beltza botatzeko aukera izan duenez, baina ez biak, irakasleak jasoko ditu ikasle guztien orriak, ondorengo jardueran erabiltzeko. Eta *Nork bere ezaugarriak* izeneko eranskinean jasoko ditu ikasleen ekarpenak.



## NI ETA NIRE TALDEA

**Talde handian,** kontuan izanik helburua zela ondo egoteko partekatzea eta agerian uztea askotarikoak garela eta gauza berdintsuak behar ditugula ondo egoteko, ikasleekin saioaren balorazio txiki bat egingo da:

- Zer egin dugu ondo?
- Zer hobetu behar dugu?

Irakasleak jasoko du ikasleek esaten dutena eta hurrengo saioan gogoraraziko die.

### DENBORA

Saio bat

### BALIABIDEAK

- Bi pilota. Zuria eta beltza
- Eranskina: "Nork bere ezaugarriak"